DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest! KINKA LARRIAN! Info+ 25. or

207 zenbakia
2019 **azaroa**

Prest!



BERBETAN: EVELYN MORALES ETA DAVID BUITRON ECUADOR ETXEA

ERREPORTAJEA: ARANGOITIKO MERKATU ZAHARRA **BARKUA:** BAI EUSKARARI SARIA

TOKIKOM

201-202-203-204-205-206-

Gure babesleak

berbaizu euskaraelkartea

intxixu ikastola

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

txantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

S.D. DEUSTO

erraldoien ondalan konpartsa

DEUSTO BIZIRIK Comercios, servicios y hostelería de Deusto

bekoerri kultur elkartea

ARRAVN TALDEA DEUSTU

ELORRI Bertso Eskola

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

Etxerat

DEFENDA DEZAGUN!

ziri kat zeq!

eaj pnv deustu

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI OTZAKIN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bilbao

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

207 zenbakia
2019ko azaroa

aurkibidea

Helene Sarasola Isazelaia - Iñigo Martinez Peña	**Iritzia**	4
Ela Kielar	**Gurera etorriak**	5

e **erreportajea**
Arangoitiko bizilagunek erabilera anitzeko gunea aldarri

Arangoitiko merkatu zaharraren erabilera auzoko premien lehen lerrora itzuli da. Bilboko Udalak lokala auzokideen esku utziko zuela agindu zuenetik lau urte igaro dira, baina mugimendurik egon ez dela salatu du Arangoitiko elkarteen koordinakundeak. — 6

Intxixu Ikastola	**Eskolak**	10
Euskarazko agiria Deustuko Udal Artxiboan	**Behin batean**	12
Nola babestu etxebizitza eta eraikinak?	**Artikulua**	14

b **berbetan**
EVELYN MORALES ETA DAVID BUITRONekin

Ecuador Etxeko kideak dira Evelyn eta David. 2008az geroztik Botikazar Erriberako 21. zenbakian dauka egoitza elkarteak. Gizartea eraldatzeko egiten dute lan, kulturartekotasuna, komunitate komunikazioa eta hezkuntza herrikoia lanabes hartuta. — 16

Arangoitiko Irakasle Eskola	**Irudiak berbetan**	21

OKUPAZIOA Liburuxka argitaratuko du Zirikatzen! formakuntza taldeak — 24

EUSKARA Bordatxo: 2019ko Bai Euskarari saria

PINTXODROMOA Josebar - Muditobar

KULTUR TXOTX Gorka Zozaia eta Maddi Trantxe Gereño

barkua bete herba

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Iñigo Azkona Bikandi
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Helene Sarasola Isazelaia
Ikaslea

Berri txarrak ala berririk onenak etortzear daude?

Garaiotako euskal kultur erreferente handienetakoak (zuzenekoak ikusi besterik ez dago hori sinesteko) etenaldi mugagabea iragarri du. Bai, askok Berri Txarrak musika taldea hilezkortzat hartu badugu ere, 2019ko azaroaren 23an, Iruñean, eskaini dute azkenengo kontzertu demasakoa, Gorka Urbizuk, Galder Izagirrek eta David Gonzalezek, zein baino zein maitatuagoa euskal kulturgintzan. Ez dezagun ahaztu atzerrian ere Euskal Herriko enbaxadore izugarriak izan direla.

Hainbatetan aipatu izan du Urbizuk: "Pasioa da hemen exijitzea zilegi den gutxieneko hori". Bada, Berri Txarraken ez dago ez plastikozko kantarik ez soinu prefabrikaturik. Orain dela gutxi Zea Mayseko Aiora Renteriari galdetu zioten ea zer nabarmenduko lukeen Berri Txarraken inguruan. "Lana, lana eta lana" erantzun zuen. Lana, konstantzia, orduak, bihotza, indarra, gogoa, maitasuna, poesia, rocka, euskara... uztartzen dituzten hogeita bost urte gorde dituzte hamaika diskotan.

Gogoetarako joera eta gaitasuna erakutsiz euskal musikaren eszenako oinarriak guztiz sendotu ditu Berri Txarrakek. Euskal musikak, euskal kulturak, egiten gaitu herri, talde, komunitate; euskal ekosistemaren parte. Euskal kultura abiaburu, transmisioa helburu izan du Berri Txarrakek.

Kultur transmisioaren haria eten ez dadin, Deustualdean, Lurrikara, Deustuko gazte sortzaileen plaza, kultur bitartekaritza lanetan dabil nortasun partekatu bat sortuz: Eztanda, Orbelak, Patxadaz, Zoroen Kluba... taldeak ekin eta ekin dabiltza lanean. Berririk onenak etortzear daude!

Iñigo Martinez Peña
Filosofia irakaslea

Oinarrizkoena

Filosofia galdera konplikatuetan eta korapilatsuetan galtzen da askotan. Eta gustuko dut galtzea, egia esan, baina batzuetan ez da ahaztu behar oinarrizkoena, funtsezkoena. Hori sentitu nuen nire 8 urteko alaba Kattalinek bere neba txikiari kontatutako ipuina entzuterakoan. Haurtzaroa entzutea oso aberasgarria izan daiteke. "Bazen behin ume bat besteak zirikatzen zituena une oro. Besteon aurpegietan tristura eta malkoak ikustea zeukan helburu..." Ipuinaren gorabehera interesgarriak asmatzen jarraitu zuen, baina amaieran galdera etorri zen: zer dela-eta jokabide hori? Zein zen bere egonezinaren eta haserrearen motorea? Abandonaturik sentitzen zela. Ados, denok gaude apur bat abandonatuta mundu honetan; aterperik ez dago, pentsalari existentzialistek esan bezala. Horrek ere ez du edozein jokabide justifikatzen... baina babesgabetasuna biguntzeko, besteak aintzat hartzea bereziki garrantzitsua da. Giza bizitza eraikitzeko eta elkarri aterpea emateko modua: elkarri entzutea, zure hitza eta sufrimendua kontuan izatea, elkar laguntzea. Egun, ebaluazioen zifrek, estatistikek, pantailetako irudiek, adituek, gurasoek, irakasleek, logaritmoek... gure ordez hitz egiten dute, isilarazten gaituzte. Uste dut - eta desadostasunak desadostasun- hitza, belarria, eta presentzia adeitsua edonorentzako oinarrizkoak direla. Horrek kide egiten gaitu, gizaki egiten gaitu, eta haserre askoren kontrako antidotoa izan daiteke.

Ela Kielar

Jatorria: Przemy´sl, Polonia
Bizitokia: Ibarrekolanda
Lanbidea: Kultur kudeatzailea, hizkuntzalaria, transkribatzailea

“Bertoko kultura eta jendea hobeto ezagutu ditut”

Testua
Jone Gartzia

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?
2008an, Polonian ikasketak amaitutakoan. Neba Alacanten bizi zen eta horra joatea erabaki nuen gaztelania ikasteko. Han Euskal Herrian bizi den jendea ezagutu nuen eta hona etortzea erabaki nuen. Hemen bi master egin nituen eta hainbat proiektutan aritu nintzen beka bitartez.

Euskal Herria gustuko duzu?
Asko gustatzen zait, batez ere paisaia eta jendeagatik. Hasieran nahiko desberdina egiten zitzaidan, baina era baikorrean. Oso gustura nago hemen.

Zer dauka Poloniak ez duena?
Jendeak kalean egoteko duen ohitura. Polonian, eguraldi txarra dela eta, denbora asko ematen dugu etxean. Tabernak sozializatzeko eta harremanak sortzeko leku oso garrantzitsuak dira hemen.

Zer egitea gustatzen zaizu?
Kultur arloko ekintzak, ikuskizunak... Pabellon 6era joaten naiz sarri, Alhondegira, San Frantziskora eta Zorrotzaurrera ere. Bilbon gero eta eskaintza kultural zabalagoa dago, orain hamar urte baino handiagoa.

Luzerako geratzeko asmoa duzu?
Momentuz bai. Orain urte batzuk Poloniara bueltatu nintzen, lan munduan beste aukera batzuen bila, baina ez nuen lortu eta hemen nago berriz ere. Orain transkiptore eta linguista moduan lan egiten badut ere, nire asmoa kultur kudeatzaile gisa jardutea da. Horregatik ikasi nuen euskara.

Nolatan?
Beka bat eman zidaten Alondigan Kultur Programazio sailean aritzeko, eta amaitzean pentsatu nuen hemen lan egiteko aukerak izango nituela. Kultur arloan lan egiteko euskara jakitea beharrezkoa dela uste dut, eta horregatik hasi nintzen ikasten. Gainera, hizkuntzak bertako kultura hobeto ezagutzeko aukera ematen du, beste ikuspuntu batetik begiratzeko. Nire ustez bizi zaren tokiko hizkuntza jakitea oso garrantzitsua da.

Norekin egiten duzu euskaraz?
Lagun batzuekin eta ahal dudan guztiekin. Askotan mendira joaten naizenez, herrietako jendearekin egiteko aprobetxatzen dut.

Zer eman dizu euskara ikasteak?
Bertoko kultura eta jendearen izaera hobeto ezagutu ditut, euskaldunekin harreman hobeak egin ditut...

Antzekotasunik al dago euskara eta poloniarraren artean?
Polonieran ere deklinabidea dago, eta ikasten zaila dela diote, euskara bezala.

Jendea harritzen al da euskaraz egiten diezunean?
Euskaraz gaztelaniaz baino azentu gutxiago daukat, horregatik uste dut askok ez dakitela nondik natorren eta ez didate askotan galdetzen.

Mantentzen dituzu hango ohiturak?
Kultura eslaviarrean egun seinalatuak diren egunei ez diet asko erreparatzen. Ohiturak ere, gehienak dagoeneko ez ditut mantentzen. Etorri nintzenean agian bai, baina orain ez dut gauza berezirik egiten. Hemen lauzpabost poloniar baino ez ditut ezagutzen.

Agirre baserria

ARANGOITIKO BIZILAGUNEK ERABILERA ANITZEKO GUNEA ALDARRI

Urriko PREST! aldizkarian (206. zenbakia) iragarri bezala, Arangoitiko merkatu zaharraren erabilera auzoko premien lehen lerrora itzuli da. Bilboko Udalak ia 30 urte hutsik daramatzan lokala auzokideen esku utziko zuela agindu zuenetik lau urte igaro dira, baina mugimendurik egon ez dela salatu du Arangoitiko elkarteen koordinakundeak.

Testua eta argazkiak:
Jone Gartzia

2015eko udal aurrekontuetan onartu zen merkatua birgaitzea, lan horretarako langabe bilbotarrak kontratatzeko konpromisoarekin batera. Bilboko hiru-lau udal eraikin birgaitzeko konpromisoa hartu bazen ere, lan gehienak egin gabe geratu ziren, Arangoitikoa tartean. Kasu honetan 426.000 euroko aurrekontua zehaztu zen.

"Frustrazioa" aipatzen du Bihotzaran auzo elkarteko eta Arangoitiko Elkarteen Koordinakundeko kide den Angel Prietok merkatuaren birgaitzeaz hitz egitean. Izan ere, 2015eko aurrekontuetan onartu zenean, "dena eginda zegoela" pentsatu zuten, hilabete gutxiren buruan espazioa auzotarrentzako irekiko zela. Ez zen horrela izan, inondik inora, eta ordutik auzokideek Ganekogorta kaleko eraikina erabilera anitzeko zentro bilakatzea dute aldarri.

Egun Udaltegi funtzioa betetzen duen Agirre baserria (Aranekobidea, 37) txiki geratzen da auzoko 13 elkarteentzako eta auzoko

Arangoitiko merkatu zaharra

bizilagunentzako. Horregatik, hemendik aurrera elkarteen koordinakundeak hartuko du erabilera anitzeko espazio berri baten premia lau haizetara aldarrikatzeko ardura. “Beharrizan handia dago, eta guztion artean borrokatuko gara”, azaldu dute.

Euren eskakizuna lokala berritu eta auzokideen esku uztea da, eurek kudeatu dezaten. Proposamen hori ez omen zaio gustatu Udalari, Haize Alde Kultur Elkarteko kide den Garbiñeren hitzetan. Horregatik urriko Udaleko Osoko Bilkuran Elkarrekin Podemosek antzinako merkatua birgaitu eta erabilera anitzeko udaltegi bihurtzeko mozioa aurkeztu zuenean EAJk eta PSEk proposamena aldatu eta bertara Nagusien Etxea eramateko mozioa aurkeztu zuten.

Auzokideek, kontrara, gaiak ez nahasteko eskatu dute. “Oso gai desberdinak dira”, esan digu Prietok, udalak eztabaida nahasi eta fokua aldatu nahi izan zuela gaineratzearekin batera. Nagusiek orain erabiltzen duten lokalean jarraitu nahi dute, baina lanak behar dituzte eraikinean horretarako, besteak beste, igogailu bat. Merkatu zaharra birgaitzekotan, hor ere biltzeko aukera izango lukete, baina lehentasuna “dauden lekuan jarraitzea da” nagusi eta bizilagunentzako.

Egun, Udalak azpikontratatutako Tecuni enpresaren biltegi gisa erabiltzen da antzinako merkatua. Garbiñek ironiaz kontatu digu nola Bilboko argiztapenerako material guztia Arangoitin gordetzen den, “Gabonetan auzoan argi bakar bat ere pizten ez duten bitartean”.

Nagusien Etxea

Auzokide guztiek bezalaxe, nagusiek ere espazio egoki eta irisgarri baten premia dute. Egun BBK-ren lokala erabiltzen dute, baina bankuak uda aurretik erabaki zuen gizarte ekintza itxi eta zahar etxea bertan behera uztea. Geroztik, Arangoitiko Luisa de Marillac elkarteak hartzen ditu bere gain lokalaren gastu guztiak (ura, argindarra, alokairua, berogailua…), BBK-k espazioaren erabilera utzi baitie. Elkarteak, ordea, ezingo die luzaroan gastuei aurre egin, proiektu asko baitituzte esku artean, baina “dirulaguntza gutxi”.

Udalak nagusien auzoko elkartea sortu eta horren bitartez dirulaguntzak eskatzeko proposatu zien, eta horretan dabiltza. Hala ere,

“Beharrizan handia dago, eta guztion artean borrokatuko gara”

ARANGOITIKO PARKEA: IRISGARRITASUNA HOBETZEA
PARQUE ARANGOITI: MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD
BURUTZEKO EPEA / PLAZO DE EJECUCION
10 HILABETE / 10 MESES
AURREKONTUA / PRESUPUESTO
2.110.307,54 €
ERAIKUNTZA ENPRESA / EMPRESA CONSTRUCTORA
UTE PARQUE ARANGOITI
Bilbao
berri

Ekonomia Ituna
zerikusi handia... nirekin!
Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMIA

lokalak irisgarritasun arazoak ditu, eskailerak igo behar baitituzte erabiltzaileek. BBK-ren eraikinean igogailu bat jartzeko 66000 euroko aurrekontua beharko lukete, eta momentuz Udala ez da laguntzeko prest agertu. Gainera, oraingoz lokalak BBK-rena izaten jarraitzen du, erabilera auzoko nagusien elkarteei laga badio ere.

Lanak egingo ez balira eta orain BBK-rena den eraikinean jarraitzea ezinezkoa balitz, balizko udaltegi berrian (merkatu zaharrean egingo litzatekeena) nagusientzako lekua ere egongo litzatekeela azaldu digu Angelek. Horregatik, azpimarratu du, "argi dago auzotarrok kudeatzeko espazio honen beharra".

Hurrengo urratsak

Esan bezala, erabilera anitzeko espazioa eskuratzea izango da arangoititarren lehentasuna datozen hilabeteotan. Elkarteen koordinakundeak hartu du gai hau jorratzeko ardura, premia handia duelakoan. Laster adierazpen publikoa kaleratuko dute eskakizuna bizilagunen artean zabaldu eta Udalari helarazteko. Sinadura bilketa ere abiatuko dute, eta abendu edo urtarrileko Udaleko Osoko Bilkuran aurkeztuko dituzte bildutako babesak.

Hamaika aldarri gehiago

Merkatua birgaitu eta auzotarren esku uzteaz gain, Arangoitiko bizilagunek hainbat eskakizun dituzte oraindik bete gabe. Esaterako, Egileor kalearekin egin bezala, oinezkoentzako kale gehiago nahi dituzte, eta ibilgailuak auzoaren erdigunetik atera. Horretarako, lehendabizi aparkaleku eskasen egoera konpontzea nahi dute. Estazio elektrikoan parkinga egitea da euren proposamena. Irisgarritasunarekin lotuta, "auzoaren erdigunera" joateko igogailu baten beharra azpimarratu dute Bihotzaran auzo elkarteko kideek. Izan ere, oraingoak etxe multzo jakin batera joateko bakarrik balio duela salatu dute, baina "ez auzoko erdigunera hurbiltzeko".

Arangoitiko maldan egiten ari diren parkeak ere zalantzak eta kezkak piztu ditu auzokideen artean. Asko borrokatu ostean, goi tentsioko linea elektrikoa lurperatzea lortu zuten, hasiera batean parketik oso gertu igaroko baitzen, hiru metro eskasera. Parkean bertan komun publikoa jartzeko konpromisoa hartu zuen Udalak, baina azkenean etxebizitza multzo baten alboan jarri dute, agindutakoaren kontrara. Parkea oraindik amaitu gabe dago eta ez dakite zelan geratuko den, baina nahiko lituzketen hobekuntza batzuk badituzte gogoan, esaterako, behatoki bat edo ariketak egiteko gune bat izatea.

"Nagusien lehentasuna dauden lekuan jarraitzea da"

DEUSTO BIZIRIK
Comercios, servicios y hostelería de Deusto
HEMEN BIZI, HEMEN EROSI... DENOK IRABAZI!!
Denon artean, zaindu dezagun gure auzoa

TEKNOLOGIA BERRIAK GURE GELETAN

Gaur egun gure eskola eta institutuetan eztabaida bizia dugu digitalizazio prozesuaren inguruan. Batzuek arazo desberdinak ikusten dituzten bitartean, beste batzuek honen onurak nabarmen azpimarratzen dituzte. Artikulu honetan auzian parte hartu nahi dugu, hausnarketa xumea eginez eta gelako esperientzia bat aurkeztuz.

Testua eta argazkiak
Intxixu Ikastola

Lehenik, aldaketa askoren garaian bizi gara, gaur egun teknologiaz inguratuta bizi gara. Gero eta eginkizun gehiago burutu behar ditugu gailu elektronikoen bitartez bizitzaren esparru guztietan: lanean, arlo akademikoan zein sozialean. Honen harira, ezinbestekoa bihurtzen da konpetentzia digitala egungo arazoak eta egoerak ebazteko. Beraz, eskolak erantzukizun hori hartu behar du ikasleek konpetentzia digitala izan dezaten.



Bigarrenik, digitalizazioak, gure esku dauden aplikazioen bitartez ikasketa prozesua erraztu egiten du neurri handi batean. Izan ere, ikasleek aukera daukate esperientzia errealagoak eta esanguratsuagoak izateko. Gainera, ikasleentzat erakargarriagoak izaten dira eta horrek motibazioa eta inplikazioa areagotu egiten ditu.





Bestalde, eskoletan aldaketa ugari gertatzen ari dira metodologia aldetik. Gaur egun Hezkuntza Sistemaren helburu nagusia da ikasle "konpetenteak" heztea, hots, bizitzan zehar sortuko zaizkien arazoak ebazteko gai izatea. Horretarako, eguneroko dinamikan eskolak ikasleak trebatu behar ditu euren errealitatetik hurbil dauden arazo-egoerak konpontzen. Prozesu horretan ezinbestekoa da ikasleak beraien ikasketa-prozesuaren protagonistak izatea, irakasleak gidariaren eta laguntzailearen rola hartzen duelarik. Hortaz, Ikasle aktibo hauen eginkizuna izan behar da informazioa biltzea, prozesatzea, diskriminatzea, eraldatzea eta partekatzea. Ezbairik gabe, digitalizazioa ibilbide horretan erabat lagungarria eta beharrezkoa izango da.

Artikulu hau aprobetxatu nahi dugu gelako esperientzia bat zuekin guztiekin partekatzeko, giza gorputzaren sistema eta aparatu desberdinak ikasteko oso baliagarria izan zaiguna. VIRTUAL-TEE izena duen aplikazio didaktikoa da. Argazkietan ikusten dugun bezala, kamiseta berezi bat erosi behar da, 27 euro balio duena. Horrez gain, aplikazioa eskuko telefonoan deskargatu behar dugu. Ikasleek txandaka kamiseta janzten dute eta beste batek edo irakasleak eskuko telefonoa hari begira ipiniko dio metro bateko tartea utziz.

Horrela, kamiseta jantzita duen gorputzaren barrukiak ikusiko ditugu. Aplikazioak aukera emango digu nahi dugun sistema edo aparatua hautatzeko eta nahi izanez gero ahozko azalpena ere dago, zoritxarrez gaztelaniaz egina.

Demagun digestio aparatua hautatzen dugula. Urdailaren funtzionamendua ikusiko dugu, nolakoa den barrutik, hesteetan sartuko gara, elikagaiek egiten duten bidaia ikusi... Ikastea abentura bihur daiteke! Hala ere, honek guztiak jarraipena izan behar du geletan. Ikasleek ikerketa lana egin behar dute, leku desberdinetatik informazioa bildu, metodo zientifikoa aplikatu, beste ikasle, talde edo erakundeekin partekatu...

Esperientzia polita eta esanguratsua izan da, irakasle zein ikasleen gustukoa!

EUSKARAZKO AGIRIA DEUSTUKO UDAL ARTXIBOAN

Ehun eta bi urte dauzka. Orrialde bi baino ez dira. Aldundiak bidali zion Deustuko Udalari. Eta balio handia du. Deustuko udal artxiboko euskarazko agiri bakarra da. 1917an batzuek ireki zuten bidea laster zapuztu zuten besteek.



Testua: Hektor Ortega

Deustuko Udal artxibo historikoak gure herriak independente iraun bitartean sortutako dokumentazioaren parte bat gordetzen du. Batez ere XIX. mende amaierako eta XX. mendeko lehenengo hiru hamarkadetako agiriak dira, 1925eko urtarrilaren 1ean Bilbo Deustuaz jabetu zen arte. Baina badira XVII. mendetik aurrerako akta liburuak, kontu liburuak eta beste paper batzuk ere.

Bada, agiri guzti horiek erdaraz daude. Herri euskalduna izan zen arren ia anexioa gertatu arte (1925erako euskara endekatuta zegoen Deustuan), dokumentazio guztia erdaraz dago. Hori ohikoa izan zen Euskal Herrian, euskara herritar gehienen hizkuntza izan arren (askotan hizkuntza bakarra), agiriak erdaretan (garaien eta lekuen arabera, latinez, gaskoieraz, gaztelaniaz edo frantsesez) idazten zituzten eta. Oso ale bakanak sortu zituzten tokiko administrazioek euskaraz. Bat ere ez, estatuetako administrazioek, proklama edo bando gutxi batzuk izan ezik. Adibidez, Alfonso XII.ak Azkoiendik emandako proklama euskaraz bidali zion Gobernadore Zibilak Deustuko Udalari 1875ean (ikus PREST! 160. zenbakia).

Hortaz, salbuespen bitxia da 1917ko agiri hau. Bizkaiko diputatu Luis Urrengoetxeak bidali zion Deustuko Udalari, euskaraz eta erdaraz (euskaraz Urrengoetxea'tar Koldobika sinatu zuen). Zirkular eredu bat zen, inprimaturik, eta eskuz idatzi zituzten data eta herri bakoitzaren izena. Gutunaren zeregina zen herriei gomutara ekartzea kontu ekonomikoak zelan aurkeztu behar zituzten. Hala ere, keinuak ez zuen oihartzunik izan Deustuko udaletxean, ohar bat idatzi baitzuten agirian, erdara hutsez, erdarazko bertsioaren alboan.

1917ko Diputazioa

Aldaketa handia gertatu zen Bizkaiko Diputazioan 1917an. Lehenengoz, jeltzaleek eskuratu zuten, Ramon de la Sota, Luis Urrengoetxea eta Ignazio Rotaetxe erakundearen buru jarrita. Lehentasunetako bat hizkuntza izan zen. Artean administrazio horrek bazterturik zeukan hizkuntzari, euskarari alegia, lekua egiteko plangintza jarri zuten abian. Herrietara zirkular elebidunak bidaltzen hasi zen Diputazio berria, beste lege-dokumentu batzuk euskaratzeari ekin zion, euskara erakundetzeko prozesuari bultzada eman zion (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza...) eta, are garrantzitsuagoa

dena, artean gure hizkuntza arbuiatzen zuen irakaskuntzan euskara txertatzeko lehenengo urratsak egin zituen.

Zirkularrek euskarazko harremana piztu zuten kasu batzuetan. Esate baterako, Zeanuriko alkateak euskaraz erantzun zion Diputazioari. Bestetik, hizkuntzaren garapenari lagundu zioten, itzultzaileek euskarazko testuen corpusa osatu zutelako. Baina, batez ere, presentzia publikoa, itzala eta estatus soziala aitortu zioten euskarari. Euskara administrazioan sartzeko lehen urratsa zen, Bizkaiko herri askotan euskaldun elebakar ugari zeuden sasoian. Hala ere, bide laburra egin zuen, 1919an jeltzaleek Diputazioa galdu eta elebitasunaren aukera zeharo zapuztu zen eta.

Bide luzeagoa egin zuen, ostera, auzo-eskoletako proiektuak. Herri txikietako eskolak ziren eta, gehienak euskaldunak ziren lekuetan euskarazko irakaskuntza eman behar zuten. Horretarako testu liburuak sortu zituzten euskaraz eta pedagogia berri bat ezarri. Denetara ehun eskola eraiki zituzten Bizkaiko baserri auzoetan. Hala ere, proiektu horretan ere laster zapuztu zen euskarazko irakaskuntzaren ametsa. Ikastolak beste bide batetik etorri ziren.

Amaitu orduko, irakur dezagun testuaren zati bat, garai hartan Luis Biziola edo Mikel Arruza itzultzaileek sortu zuten administrazio hizkuntza ereduaz jabetzeko: “Arazo au erri ogasunari dagokijo, ta augatik alik ziatzen eta argijen egingo da; ta kontubak aurkeztuko dira, osoro Batzorde onek bein baño geyagotan agindu daun arauz; ta ezegatik eztira itxiko kontubok agirijan ipiñi barik, edozein auzokok ikusi, ezautu ta aztertu daikezanetzat”. Batzuk euskarari atea ireki zioten, ahalegin eskerga eginda; danbada batez itxi zuten beste batzuk, arin-arin.



IDAZKI OROKAŔA

Bizkai'ko Komisiño Porbintzijalak egokija eritxi dautso Alkatiai gomuta-erazotia, ona litxakela Udal edo Ayuntamentuben landola-señak 1[illegible]gafen urteko efolda edo kontu orokafak eta azkenenguak gertetan astia. Onetarako geĩu zan epia Bagiĩa 30'gn amaĩu da; GariĨa'ko lenengo astegunan kontubak amaĩuko dira, ta berialaxe biarko dana egingo da, DagoniĨa'ko bigafen amabosteuna igarota, Batzorde onek onetsi dagixantzat, aurkezteko.

Arazo au efi-ogasunari dagokijo, ta augatik alik ziatzen eta argijen egingo da; ta kontubak aufkeztuko dira, osoro Batzorde onek bein baño geyagotan agindu daun arauz; ta ezegatik eztira itxiko kontubok agirijan ipiñi-barik, edozein auzokok ikusi, ezautu ta azteftu daikezantzat.

Arazo an ondo irabiltzia ondo datorkijue efi-aldunai, batez-be. Batzorde onek, ba, uste-dau, Bizkai'ko-efijetako alkatiak eta ziñegotzi edo kontzekalak, eta batez-be Idazkarijak, Efoldarijak eta Txindi-zañak (sekretarijo-kontulari-diru-zañak), olakuetan biafak diran gura-onaz ta zuftasunaz beteko dabela geure eskarijau, ez bakafik Bizkai Batzorde onen agindubak betetiafen, efijen ogasuna zuzen eta aftez irabiltzeko baño, orain-afte geyen-geyenetan egin dan lez. Aulan egiñezkero Batzorde onek eztau biafko agindu gogofik ageftutia, Idazki onetan afatuten dan arazua biaf dan lez betetako.

Bilbao'tik [illegible]'gafeneko [illegible]'gn.

Lendaki-orde.

Ubrengoetxea tar Koldobika.



HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK DEUSTUALDEAN

Hiru pertsonatik bik aukeratu du erabakitzeko eskubidea defendatzen duen indarren bat. Euskal Herrian bezala, Deustun eskuin espainiarrak oso emaitza kaskarrak lortu ditu.

Testua:
Borja Sarrionandia-Ibarra

Ia 500 boto galdu arren, EAJren zerrenda garaile atera da Deustun azaroaren 10ean, aurten bigarren aldiz antolatutako Espainiako hauteskundeetan. Azpimarratzekoa da erabakitzeko eskubidea onartzen duten indarrek izandako emaitza: botoen %62,56 eskuratu dute, orain dela zazpi hilabete baino 0,08 puntu gehiago. Hau da, hautetsontzietara hurbildu ziren hiru pertsonatik bik erabakitzeko eskubidearen alde dagoen alderdiren bat edo beste bozkatu dute. Bestaldetik, Espainian gertatutakoaren kontrara, Deustun, Euskal Herrian bezala, oso emaitza kaskarrak lortu ditu eskuin mutur espainiarrak.

495 bozka gutxiago atera ditu EAJk Deustualdean. Hala ere, 10.212 botorekin alderdi jeltzalea garaile atera da beste behin ere. Botoen %36,39 eskuratuta, orain dela zazpi hilabete baino 1,19 puntu gehiago eskuratu du, parte-hartzearen jaitsieraren ondorioz. Apirilean bezala, EAJ lau auzotan izan da lehen indarra: Deustuko Doneperiagan (%41,3), Elorrietan (%38,52), Ibarrekolandan (%34,84), eta San Ignazio-Tellaetxen (%33,61). Deustuibarran (%23,5) eta Arangotin (%21,28) bigarren indarra bilakatu da.

Pedro Sanchezi jokaldia txarto atera arren, Deustun bigarren indarra izateari eutsi dio PSOEk, 5.524 boto lortuta (%19,68). Zazpi hilabeteotan 733 bozka galdu ditu. Arangoitin apirilean erdietsitako lehen postua mantendu du, bertan botoen %31,81 eskuratuta. Bigarren indarra izan da Ibarrekolandan (%21,63), San Ignazio-Tellaetxen (%21,27) eta Deustuko Doneperiagan (%15,65). Elorrietan (%16,83) hirugarren indarra izan da Elkarrekin Podemosen atzetik. Eta Deustuibarran (%10,14) laugarrena.

Elkarrekin Podemos izan da hauteskunde honetan bozka gehien galdu dituen alderdia. Apiriletik hona 1.192 bozka galdu ditu. Hala ere, hirugarren indarra izan da 4.217 boto lortuta (%15,03).

3.127 bozkekin EH Bildu laugarren indarra izan da, botoen %11,14 lortuta. Parte-hartzea sei puntu jaitsi arren, indar suberanista ezkertiarrak orain dela zazpi hilabete baino 237 bozka gehiago eskuratu ditu. Apirilean Deustuibarran lortutako lehen postuari eutsi dio, bertan botoen %36,41 lortuta.

Eskuin muturreko eta indar autoritario espainiarrak, denak batuta, ez dira heldu %15era eta apirilean baino ehuneko txikiagoa lortu dute. PP bosgarren indarra izan da, 2.931 boto eskuratuta (%10,44). Ibarrekolandan (%11,81) laugarrena izan da, EH Bilduren gainetik. 4 boto bereganatuta, Deustuibarran (%1,84) seigarren indarra bilakatu da VOX alderdi ultraeskuindarraren azpitik eta Mas Paisekin berdinduta.

VOX alderdiak 729 bozka baino ez ditu lortu, apirilean baino 60 gutxiago. Mas Pais alderdiak oso emaitza apalak lortu ditu Deustun, 499 boto (%1,78) eta honen atzetik, Ciudadanos gelditu da, 350 boto eskuratuta (%1,25). Riveraren alderdi ohiak 748 bozka galdu ditu apiriletik hona.

Senatua

Senaturako Deustun izandako emaitzak Bizkaiko berdinak izan dira. Herrialdean Madrilen aulkia lortutako lau hautagaiak Deustun bozka gehien jaso dutenak izan dira, EAJkoak denak.

artikulua
Eraikinak

NOLA BABESTU ETXEBIZITZA ETA ERAIKINAK?

Amelie ekaitzak Deustuko etxebizitza batzuetan eragindako kalteek jakin-min handia piztu dute. Istripua ekidin zitekeen ala ez argitzeko eta bizilagun komunitateek jarraitu beharreko arauak ezagutzeko hainbat aditurekin hitz egin dugu.

Joan den azaroaren 3ko goizaldean Lehendakari Agirreko etxebizitza baten horma askatu eta Eliseo Migoya plazako beste etxe baten teilatuaren gainean erori zen. Aste euritsua eta haizetsua izan zen, eta horrek eragin omen zuen istripua eraikuntza akats batzuk zituen fatxadan.

Kalte materialez gain ez zen zauriturik egon. Zorionez, harriek apurtutako etxebizitzaren jabeak ez zeuden bertan. Hala ere, oraindik ezin izan dira etxera itzuli, eta lanek luze joko omen dute.

Gertatutakoaren harira adituengana jo dugu bizilagun komunitate batek zer neurri hartu behar dituen ezagutzeko.

50 urte baino gehiago dituzten eraikinek Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) egin behar dute. Eusko Jaurlaritzari laguntzaren bat eskatu nahi diotenak ere, azterketa gainditzera derrigortuta daude. Lehen ikuskapena eginda, hamar urtean behin egin behar da. Deustuko etxebizitza asko 1960ko eta 1970eko hamarkadetan eraiki zirenez, gehienek eginda izan beharko lukete EIT-a.

Azterketa horretan eraikinaren estalkia, fatxada, zimendatzea, egitura eta instalazioak berrikusten dituzte. Balizko akats eta arriskuak detektatzeko bizilagunei galdeketa egiten zaie. Hori omen da arrakalak eta pitzadurak antzemateko modurik eraginkorrena.

Bizilagunen komunitatea arduratu behar da EIT-a egingo dion arkitekto teknikoa bilatzeaz. Honek, eraikina ikuskatu eta galdeketa egin ostean, eraikinaren arriskuak tipifikatu egiten ditu, mota eta mailaren arabera. Ondoren, komunitateak azterketaren emaitzak Udalean aurkeztu behar ditu. Eraikinen jabeak dira honen egoera zaindu eta mantendu behar dutenak, eta ondorioz, eragindako kalteen erantzukizuna haiena da.

Lehendakari Agirreko eraikinaren kasuan, litekeena da azterketa gainditua izatea (1958. urtean eraikitakoa da), baina ikuskapenean arriskurik nabaritu ez izana. Izan ere, arkitekto batek azaldu digunaren arabera, eraikinak arazoaren sintomarik azaltzen ez badu oso zaila da hautematea. Fatxada eraikitzerakoan ez zen behar bezala ezarri, eta egun horretako haize ufada bortitzek adreiluak askarazi zituzten.



berbetan

EVELYN MORALES ETA DAVID BUITRONekin

Ecuador Etxeko kideak

“Bilbok duen egoera soziala

Ecuador Etxeko kideak dira Evelyn Morales (Cayambe, Ekuador, 1987) eta David Buitron (Quito, Ekuador, 1982). 2008az geroztik Botikazar Erriberako 21. zenbakian dauka egoitza elkarteak. Gizartea eraldatzeko egiten dute lan, kulturartekotasuna, komunitate komunikazioa eta hezkuntza herrikoia lanabes hartuta.

Testua eta argazkiak: PREST!



iruditan bildu nahi dugu”

Noiz eta nola heldu zineten Euskal Herrira?
Evelyn (E): Orain 15 urte heldu nintzen Donostira, familia berrelkartze prozesu baten ondorioz. Lehendabizi aita etorri zen, eta ondoren nire ama, bi nebak eta laurok.
David (D): Bilbora 2006an, baina 1998tik Murtzian bizi nintzen. Ni ere berrelkartze prozesu baten ondorioz etorri nintzen. Anai nagusia etorri zen lehena, Espainiako egoera ikustera. Jarraian, nire aita etorri zen, eta gero ama, anai txikia eta ni.

Nola sortu zen Ecuador Etxea?
E: Donostian sortu zen 2000. urtean. Bertara Ekuadorreko jende asko heltzen zen eta komunitate sendo bat zegoen. Sostengu talde bat sortu zen etorri berriak aholkatu eta lana eta ostatua aurkitzen laguntzeko. Elkargune bat zen, eta batez ere jaia eta arlo kulturala lantzen ziren, etorkinen edozein elkartetan bezala.

Noiz heldu zen Ecuador Etxea Deustura?
E: 2006 eta 2007 urteen artean Latinoamerikako jende asko etorri zen hona. Deustun, esaterako, lagun taldeak sortzen hasi ziren, eta gazte asko Done Petri plazan elkartzen hasi ginen. Auzokideak ez ziren gutaz fido, gaizkile-taldeak ginela pentsatzen zuten. Egoera horri aurre egiteko sortu zen Bilbon Ecuador Etxeko ordezkaritza, kalean elkartzen ginen gazteoi espazio bat eskaintzeko.

Zeintzuk izan ziren lehenengo proiektuak?
E: Futbol talde bat geneukan, emakumezkoena zein gizonezkoena, eta latinoamerikarren kolektiboek antolatutako txapelketetan hartzen genuen parte. Garai horretan parte hartzaile guztiak adin txikikoak ginen. 2007an Bizkaiko Foru Aldundian dirulaguntza bat lortu genuen gazte latinoamerikarren artean kirola sustatzeko. Zuk pentsa, orduan, Foru Aldundiak ez zuen aniztasuna eta immigrazioa lantzeko laguntzarik ematen! Diru horrekin egungo lokala alokatu genuen 2008an, eta geroztik hemen gaude. 2011ra arte arlo kulturala lantzen genuen, batik bat kirola eta gastronomiaren bitartez. Apurka-apurka arrazakeriaren ondorioak lantzen hasi ginen tailerren bitartez.

Krisiak zuen lan egiteko eran eragin zuen.
E: Bai, orduan erabaki genuen proiektuari buelta bat ematea. Krisiaren ondorioz dirurik eta lokalik gabe geratu ziren kolektiboei gure baliabideak uzten hasi ginen. Horri esker, jende asko ezagutu genuen eta egunero zeharkatzen gaituzten beste hainbat alderdi lantzen hasi ginen, ez soilik migratzaile gisa, baizik eta emakume, gazte edota langile gisa.

Nola sortu zenuten komunikazio proiektua?
D: Kasualitatea izan zen. Guk egoitza bat, argazki kamera bat eta webgune bat geneuzkan. Krisia gogor jotzen ari zen eta

“Krisiaren ondorioz dirurik eta lokalik gabe geratu ziren kolektiboei gure baliabideak uzten hasi ginen”

berbetan

EVELYN MORALES ETA DAVID BUITRONekin

▷▷ SAKONEAN

Zuen lanak asko dauka militantziatik, zelan uztartzen dituzue?

E: Gustatzen zaigulako eta beharrezkoa dela uste dugulako egiten dugu hau. Prekaritatearena eta lana eta militantziaren arteko lerro estuarena kolektibo askorekin partekatzen ditugun gaiak dira. Esan beharra dago, guk lan hau egin dezakegula hein handi batean pribilegiatuak garelako eta babesten gaituen familia baten koltxoia daukagulako.

D: Horren egoera ekonomiko larri bat igaro ostean, eta hainbeste urtetan doainik lan egin eta gero, askotan gure buruei galdetzen diogu ea jendea honetaz jakitun den. Baina ez zaigu jendeari gure miseriak kontatzen ibiltzea gustatzen, gure lanaren bitartez eman nahi diogu buelta egoerari.

Beste zaletasunik duzue?

D: Galdera hori egiten didaten lehen aldia da (barreak). Niri futbolean aritzea gustatzen zait, eta askotan elkarrekin joaten gara mendira, asfaltotik ies egin eta lasaitasuna bilatzeko.

kolektibo askok ez zeukaten ezer. Espazio birtualarekin fisikoarekin egin genuen gauza bera egitea erabaki genuen orduan: partekatzea. Migratzaileen elkarteek antolatutako ekintzen berri ematen hasi ginen, gero sare sozialetara egin genuen salto eta, azkenean, kalera ateratzen hasi ginen, kamera eskuan.

Baduzue ospea.

D: Komunikazioaren mundua oso zabala da eta guztiontzako lekua dago. Guk Bilbok duen egoera soziala iruditan bildu nahi dugu, ez makro-proiektuena, eta horrekin beste talde eta komunikabide batzuek lana osatu.

E: Egunero kalean egonda, jendearen babesa lortu dugu. Ikusten gaituztenean badakite gertatzen ari dena ondo erregistratuta geratuko dela.

Duela urtebete zuen irudia eta webgunea berritu zenituzten. Zein asmorekin?

E: Gure lana laburbiltzen duen irudi bat nahi genuen, Ekuadorreko eta Euskal Herriko sinbologiarekin. Myriam Camerosek diseinatu zuen logoa, Aya Huma pertsonaia kitxuaren maskaran oinarrituta. Inti Raymi jaialdiarekin (Eguzkiaren jaia) lotuta dago eta komunitate osoak festan parte parte-hartzeaz arduratzen da. Partaide garen gizarte-antolakuntzako eta transformazioko proiektuekin lotu genuen.

Zer eragin izan du beste talde batzuekin elkarlanean aritzeak zuen lan egiteko eran?

E: Elkarlanari esker bestelako gaiak lantzen hasi ginen. 2012an, Gallardon abortatzeko eskubidearen legea aldatzen saiatu zenean, gure baliabideekin mugimendu feministako kideei laguntzen hasi ginen eta jabetu ginen gure jardunean begirada feminista txertatzeak duen garrantziaz. Ordutik aurrera hainbat ekintza antolatzen hasi ginen, feminismoa eta intersezkionalitatea kontuan hartuta.

Gaur egun, zeintzuk dira zuen lan-ildoak?

E: Antolatzen ditugun jarduera guztiak lau ildotan biltzen dira: komunikazio feminista

eta antiarrazista, autodefentsa feminista, artea eta feminismoa, eta euskara. Tailerrak, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen ditugu urte osoan zehar.

Zein da emakume etorkinen egoera mugimendu feministan?

E: Emakume migratzaileek jasaten dugun zapalkuntza bikoitza da, eta asko oso egoera zailean daude. Zure premiazko beharrizanak ez badaude asebeteta, ez badaukazu lanik ezta egonkortasunik, ez badaukazu paperik… ez duzu astirik izango bilera batera joan edo proiekturen batean parte hartzeko. Azkenengo bost urteotan ikasi izan dugu emakume migratzaileak hainbat kolektibotan parte hartzen hasi direla. Gure ustez, ahaleginak eta bi egiten ari dira bertan egoteko. Ez ditugu baliabide eta aukera berberak eta sarritan leporatzen digute ez dugula parte hartzen.

Nola finantzatzen dituzue Ecuador Etxeko proiektuak?

D: Duela bi urte ekonomikoki hondoa jo genuen. Argindarra ordaintzeko dirurik ere ez genuen, eta familian diru eske ibili ginen. Orduan gure inguruan laguntza eta babesa ere eskatu genuen. Azkenaldian GKE askok komunikazio lanak egiteko kontratatzen gaituzte, eta horrek ekonomikoki asko laguntzen gaitu.

Dirulaguntzak jasotzen dituzue?

E: Urtean bi baino ez, proiektu jakin batzuetarako. Eskatzeari uztea gustatuko litzaiguke, baina orduan ezingo genieke hitzaldiak eta tailerrak ematera datozenei duintasunez ordaindu.

D: Egunero egiten dugun lana sei hilabeterako jardunaldi erdi batekin aurrera ateratzen dugu, nahiz eta benetan bi pertsona garen urte osoan eta egun osoan lan egiten. Askotan igande arratsaldeak baino ez ditugu libre.

Zeintzuk dira epe luzerako helburuak?

D: Gure asmoa ez da haztea, baizik eta orain arte egindako lanarekin jarraitzea, bizitzeko beste irabaziz sikiera, ez egoera prekarioan.

E: Egiten dugun lana hobetzea eta Bilboko kolektiboek egiten duten lanari balioa eranstea. Orain ikus-entzunezkoetan trebatzen ari gara komunikatzeko era berrietara moldatzeko.

Harremana duzue Deustuko gainerako taldeekin?

D: Proiektua martxan jarri genuenean Bilbora jo genuen Deustura baino lehen, eta horregatik berandu hasi gara harremanak ehuntzen. Sare sozialen bitartez, Pareren berri izan genuen, haiei esker Gazte Lokalera hurbildu ginen, gero Berbaizu ezagutu genuen… Atzekoz aurrera egin genuen saretze prozesua, Deustutik hasi beharko genuen eta ondoren Bilbora jo.

Zein da Ekuadorreko egoera gaur egun?

E: Gobernuarekin akordioa lortu ostean, protestak baretu egin ziren. Hala ere, gobernuak oraindik Nazioarteko Diru Funtsaren betekizunak konplitu behar ditu, berak agindu baitzion protestak piztu zituen dekretua martxan jartzea. Ekuadorrek zor handiak ditu beste herrialde batzuekin, NDFri maileguak eskatu dizkio, eta lehenago edo geroago erreforma ekonomikoak egin beharko ditu. Orain dela gutxi mobilizazioen buru izan den mugimendu indigenak neurri alternatibo batzuk proposatu dizkio gobernuari, klase popularrari kalterik egingo ez lioketeenak. Bestalde, fiskaltzak mugimendu indigenaren buruzagi asko salatu ditu, sabotajea eta terrorismoa egotzita.

Ondoren Txileko protestak piztu ziren, aurretik Haiti eta Argentinakoak, orain Boloviakoak… Ba al dute harremanik?

E: Ekuadorren eta Txilen proposatutako erreformak luze egozten egon den egoera eztandarazi duen txinpartak baino ez dira izan. Hona informazioa heltzen ez bada ere, herrialde horietan urteak daramatzate protestetan. Aldi berean, eskuinak Amerikan gorakada handia izan du (AEB, Brasil…) eta jendea erantzuten ari da.

“Ez ditugu baliabide eta aukera berberak eta sarritan leporatzen digute ez dugula parte hartzen”

AISIA

San Inazioko saskibaloi eta futbito txapelketa mistoa

Azaroaren 30ean antolatu du San Inazioko gazte asanbladak auzoko saskibaloi eta futbito txapelketa mistoa. Arratsalde osoan zehar bi kiroletako partidak, zuzeneko musika, sariak, jatekoa eta hamaika sorpresa izango direla argitara eman dute. Ibarrekolandako institutuan izango da lehiaketa eta parte hartzeko sanigazte@gmail.com helbidean eman behar da izena. Taldeek bi kiroletan parte hartu beharko dute, eta irabazleak auzoko taberna batean afaria izango du sari. Iaz ospatu zuten lehen aldiz bi kirolen arteko txapelketa, eta arrakasta ikusita, bigarren edizioa prestatzea erabaki dute.

LANA

Langileen osasuna zaintzeagatik sarituak

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak saria eman dio Ile-apaindegi Jasangarri eta Osasungarrien Nazioarteko Sareari. Esther Martik jarri zuen proiektua martxan 2015ean, eta horren parte da Blas de Otero kalean dagoen Salon Valenzuela, beste 17 ile-apaindegirekin batera (EAEko bakarra da). Sarearen helburua langile eta bezeroen osasuna bermatu eta "benetako jasangarritasunaren alde" urratsak ematea da. Produktu naturalak erabiltzeaz gain, hainbat neurri hartzen dituzte langileak, bezeroak eta ingurumena babesteko. Azaroaren 12an jaso zuten saria Euskalduna Jauregian. Aurretik, ile-apaindegian sarearen gainerako partaideak hartu zituzten.

EUSKAL PRESOAK

Manifestazioa abenduan

Abenduaren 13an, ostirala, mobilizazioa egingo du Deustuko Orain Presoak dinamikak. Urriaren 29an egindako agerraldian eman zuten manifestazioaren berri. Bertan, dagoeneko 120 deustuarrek babestu duten adierazpena kaleratu zuten. "Konponbiderako, elkarbizitzarako eta bakerako" unea dela azaldu zuten, eta bide horretan herritar guztiek duten ardura bere egitearen garrantziaz aritu ziren. Lehentasunez konpondu beharreko auziak ere azpimarratu zituzten: presoen urruntzea, larriki gaixo dauden presoen egoera, bi estatutan ezarritako zigorren batuketaren aplikazioa, lehen graduaren aldaketa, eta, azken batean, salbuespenezko neurriak bertan behera uztea.

EUSKARAREN EGUNA

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Deustun abenduaren 3an

Euskaren eguna Done Petri plazan ospatuko dute deustuarrek. Abenduaren 3ko 20:00etan kioskoan elkartuko dira. Lehendabizi 2020ko Euskaraldiaren aurkezpena egingo dute. Ondoren kioskoko zutabeak kakorratzez egindako oihal zatiekin apainduko dituzte. Deustuar guztiek parte hartzea bilatuko dute horrela, ekintza datorren euskaraldian non eragin nahi duten galdetzeko erabiliko baitute (familian, lagunartean, lanean, etxean...). Era honetan, 2020ko Euskaraldia martxan jartzeko lantaldean parte hartzera animatu nahi dituzte deustuarrak. Eguna musikaz alaituta eta txokolate beroa eskuetan amaituko dute. Abenduaren 3koaz gain, beste hainbat ekintza prestatu dituzte inguruko ikastetxeetako euskara batzordeek. Denek ala denek euskara sustatzeko ariketa burutuko dute Euskararen Egunean. Gainera, San Inazion, Ibarrekolandan, Botikazarren eta Deustuko Ikastolan zenbait ekitaldi egingo dituzte abenduko lehen astean.



Urtea: 1976

Txema Luzuriaga

Arangoitiko Irakasle Eskola

Deustuko zonalde honetako airetiko ikuspegi bikaina. Lehendakari Agirre etorbidea eta Enekuriko igoera, hilerria eta Irakasle Eskola ikus daitezke. Azken hau 1962tik 2011ra egon zen martxan, Leioako campusera lekualdatu zuten arte. Plentziara zioan trenaren tunela ere ageri da.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
☎656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Eraso sexisten aurrean…zer?

Nerea Olaziregi

Ainhoa Basterra Santutxu

Lehenik eta behin, neska mutilei mundu guztiarekiko begirunea irakatsi behar diegu: nagusiak, txikiak, neskak, mutilak… eta erantzukizuna. Kontzientziazioa ere garrantzitsua da.

Maite Aranburu Deustua

Gure gazteek argi eduki behar dute zeintzuk diren mugak zentzu horretan eta guk etxean eta eskoletan eredu izan behar dugu.

Aketx Diego Arangoiti

Esku hartu behar dugu eta neska lagundu, erasotzailearengandik urrundu eta berarekin hitz egin. Horren arabera, poliziari deitu edo ikusi zer egin.

Gontzal Prado Deustua

Erasoak salatzeko telefono zenbakira deitu eta emakumea eta bere familia lagundu.

Marije Aldai Arangoiti

Umeen heziketan jarri behar dugu arreta nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko eta telebista saioetan, asko dugu hitz egiteko horren inguruan.

Sugoi Abascal Barakaldo

Lehenik eta behin eskolan eta egunerokoan gizonak eta umeak hezi. Eta erasotzailearentzat zigor eredugarri bat.

>> OKUPAZIOA

LIBURUXKA KALERATUKO DU ZIRIKATZEN! TALDEAK

Joan den urteko azaroan abiatutako formakuntza eta eztabaida zikloari amaiera eman nahi diote horrela, laster kalean izango den liburuxka eta bideo sortaren bitartez. Materiala Durangoko Azokan, Azoka Alternatiboan eta Boltxeren postuan egongo da eskuragarri; bai eta Zirika! herri gunean edo DDT Banaketaken ere.

Testua: Jone Gartzia

Autogestioaren eta okupazioaren ikuspegi politikoa berreskuratu nahian, *Autogestioaz jabetuz, okupazio garaia da!* proiektua izan du hizpide azken urte honetan Zirikatzen! kolektiboak. Duela bi urte Gazte Lokalaren huste arriskuaren ondotik sortutako eztabaidetan hainbat zalantza eta gatazka azaleratu ziren, eta horrek eman zien bidea ikasturte honetan landu beharreko gaia aukeratzeko.

Lehenik eta behin, bi tailer prestatu zituzten Deustuko Gazte Lokalean asanblearismoaren inguruan hausnartzeko. Okupazioaren eta autogestioaren gainean gehiago sakontzeko, beste bi jardunaldi antolatu zituzten ondoren. Horietan hainbat ertz jorratu zituzten, hitzaldi, mahai-inguru, tailer eta eztabaiden bitartez. Hala nola, okupazioaren ikuspegi estrategikoa, sortutako bizitza eredu berriak, espazio okupatuen autodefentsa, jabetza intelektuala eta okupazio eredu kolektiboak izan zituzten aztergai. Horrez gain, zenbait bideo argitaratu zituzten, lurraren okupazioaz eta irrati-uhinen okupazioaz kasu.

Urtebeteko lanketatik hainbat ondorio atera dituzte. Lehena, okupazioa eta autogestioa eraikuntza sozialerako ezinbesteko tresnak direla. Horregatik, krisi garai honetan birjabetze dinamiketan sakondu eta gero eta espazio liberatu gehiago irabazteko beharra aipatu dute. Orobat, egungo testuinguruan sortzen ari diren alternatiba politikoen garrantzia azaleratu eta hauen potentzialtasuna azpimarratu dute.

Hauek oinarri hartuta, ohikoa duten aldizkariari beste dimentsio bat eman eta liburuxka osatzea erabaki dute. Okupazioaren eta autogestioaren inguruan asko hitz egin den arren, maila teorikoan idatzita ezer gutxi dagoela-eta, hutsune hori betetzeko aukera ikusi zuten. Horrekin batera, Deustuko Gazte Lokalean aritutako zazpi belaunaldi ezberdinetako kideei egindako bideo-elkarrizketak argitaratuko dituzte. Bideo-sorta USB batean banatuko dute liburuxkarekin batera.

Abenduan izango da lan osoa kalean. Durangoko Azokan, Azoka Alternatiboan eta Boltxeren postuan eskuratu ahal izango da. Zirika! herri gunera eta DDT Banaketakera eramateko asmoa ere badute.

Euskaragida.eus

Dagoeneko kalean da 2019-2020 Euskarazko Produktuen Gidaren paperezko edizioa. Bertan azken urtean 0-12 urteko haurrei zuzendutako euskarazko kultur eta aisialdiko produktuak jasotzen dira. Nolanahi ere, adin guztiei zuzendutako produktuen informazioa ww.euskaragida.eus webean dago. Etengabe berritzen dute gida aipatu webgunean, jokoetan online aritzeko zein produktuak erosteko aukera ere ematen du. Gida osoa PDF formatuan ere deskargatu daiteke.

Berria FM - Podcast feminista

Berria egunkariak podcast feminista bat egingo du hamabostean behin. Azaroaren 20an estreinatu zuten Maider Galardi kazetariak zuzendu eta aurkeztuko duen podcasta. Bi astean behin, asteazkenez, feminismoarekin lotutako askotariko gaiak landuko ditu. Podcastaren gidariak iragarri du elkarrizketak mamiz beteta egongo direla. Aldi berean, gertuko tonuan arituko direla azaldu du, pedagogikoak eta ulerterrazak izateko, eta elkarrizketan daudenen artean giro gozoa sortzen saiatuko direla. Webgunean ez ezik, Ivoox, Spotify, Apple Podcasts eta Google Podcasts plataformetan entzun ahalko da.

PREST!: PIXKANAKA AURRERA

Ekainean eman genuen PREST! aldizkariaren egoera larriaren berri. Geroztik, alarma guztiak piztuta mantendu ditugu, aurtengo dirulaguntzen atzerapenek likidezian eragindako arazoa dela eta. Oraingoan, berri lasaigarri batekin gatoz: Bilboko Udaleko dirulaguntza jaso dugu. Ondorioz, urte amaiera bitartean bizirauteko moduan gaude, eta urtarrilean Bizkaiko Foru Aldundiko dirua iritsiz gero, egoera nahiko baretuko litzateke. Hala ere, ez gaude gure onenean eta egoerak estua izaten jarraitzen du oraindik. Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak dirulaguntzak eman bitartean ezingo dugu zorrik kitatu ezta aurreikuspen handirik egin. Horregatik, irakurle guztien babesa eskatzen jarraitu behar dugu, hori baita aldizkaria ekonomikoki egonkortu eta proiektua indartzeko bide bakarra. Beste behin ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu era batean edo bestean egoera honi aurre egiten lagundu diguzuen guztioi, zuek gabe aldizkari hau ez litzatekeelako posible izango.

BORDATXO: 2019KO BAI EUSKARARI SARIA

Euskararekin hartutako konpromiso argia aitortu nahi izan die Bai Euskarari elkarteak urriaren 24an emandako sariarekin.

Testua: PREST! / **Argazkia:** Bai Euskarari elkartea

Bordatxoko lantaldearentzat ezustekoa izan da. Joan den urrian jasotako Bai Euskarari saria, 'Zerbitzua eta lana euskaraz' mailan, "inondik inora" ez zuten espero Gorka Ganboa eta Esti Lezeak. Gasteizen ospatutako ekitaldian izan dira srituak Mertxe Mugika eta ABB Niessen enpresarekin batera. "Aitorpen modura itzela da, oso gustura hartu dugu", dio Gorka Ganboak harro-harro.

Izan ere, Gorkak eta Estik ez dute lanean soilik egin euskararen aldeko apustua, "bizitzan egin dugu apustu hori". Biak dira euskaldun berriak, eta euskalduntzea erabaki zutenean ez zuten erabaki hizkuntza bat ikastea soilik. "Erabaki genuen euskaraz bizitzeko ahalegina egitea. Lana bizitzaren parte denez, hori ere euskaraz egiten dugu". Horregatik, Bordatxo martxan jarri zutenean argi zuten euskara izango zela "bertako hizkuntza nagusia". Jatetxeko karta guztietan, menuetan, karteletan… euskara da lehenengo hizkuntza, eta bezeroekin ere lehenengo hitza beti euskaraz izaten da. "Gure nortasunarekin lotu dugu proiektua, eta naturaltasunez atera zaigu guri horrela egitea".

Gorkaren iritziz, jatetxe bati *basque* hitza jarri, eta euskara falta bada, "ez dauka zentzurik". Esti bat dator: "Deustun eta Bilbon ez da erraza izaten ostalaritzan zerbitzua euskaraz aurkitzea; askotan lehenago topatzen da ingelesez euskaraz baino". Esaterako, menuak "lau, bost edo sei hizkuntzatan aurki daitezke, baina euskaraz ez". Euskararen presentzia oso txikia da ostalaritzan oro har; gehienez ere *on egin* jarriko du bazter batean. "Inkongruentzia izateaz gain nortasunik gabekoa da hori. Eta hori inguruan sarriegi ikusi dugu."

Are zentzugabeagoa da bezeroek zerbitzua euskaraz izatea eskertzen dutenean, bai bertakoek baita kanpokoek ere. "Atzerritarrek ere estimatzen dute euskara ikusi eta entzutea. Horretan jarraitzera animatzen gaitu bezeroen aitorpenak", dio Gorkak.

Laguntza

Ez da bide erraza euskaraz bizitzea. Batzuetan bakar samar sentitu dira Bordatxoko lagunak euren egunerokoan. Horregatik argiro diote Gorkak eta Estik "laguntza" behar dutela; laguntza hornitzaile eta instituzioekin lana euskaraz egitea lortzeko. "Oso zaila da guretzat enpresa handien publizitatea, ordainagiriak eta dokumentazio guztia euskaraz jasotzea. Horretarako behar dugu instituzio eta hornitzaile handien laguntza. Enpresek bakarrik ez, instituzioek ere lagundu egin behar dute euskarari bultzada ematen ostalaritza munduan. Denon artean saiatu behar gara euskara leku guztietan egon dadin".

Testua: Jon Intxaurraga / **Argazkia:** Beñat Lizaso

DEUSTUALDEAK EUSKARALDIA 2020 JOMUGAN

Bi urte dira 1.100 deustuarrek 11 EGUN EUSAKARAZen parte hartu zutela, urtebete 3.000 Euskaraldian partaide izan zirela eta urtebete falta da ariketa berria hasteko.

Udagoiena Euskaraldia garaia bihurtu da. Aurten ez da ariketarik egingo, baina 2020ko edizioa jomugan du Deustualdeko lantaldeak. Bi berrikuntza nagusi ekarriko ditu Euskaraldia 2020k: batetik, 15 egunekoa izango da, azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte, eta, bestetik, entitateek entitate gisa parte-hartzeko aukera izango dute. Beti lez, norbanakoek Belarriprest eta Ahobizi figuren artean aukeratu beharko dute.

Entitateen aktibazioa ariketa berriaren oinarria

Euskaraldia ariketa progresiboa da eta bigarren edizioan entitateen konpromisoan sakondu nahi du. laz sustatzaile moduan parte har zezaketen eta entitate-kideak ariketara gonbidatu eta berau garatzeko baldintzak sor zitzakeen, baina datorren urtean konpromiso handiagoak hartzeko aukera izango dute, ariguneen sorrera, adibidez. Euskaraz eroso egiteko guneak barrura eta kanpora begirakoak izan daitezke eta langileei, erabiltzaileei eta bezeroei euskaraz aritzeko aukerak zabaltzeko sortuko dira. Prozesua errazerraza da: interesa duen entitateak Deustualdeko lantaldera jo dezake ulermen diagnostikoa egiteko, horren ostean, ariguneak sortzeko baldintzak eta borondatea egonez gero, gunea sortuko luke. Amaitzeko, 2020ko arazoa heldu bitartean, Euskaraldia prestatzeko neurriak indarrean jarriko lituzke. Izen-ematea aurtengo azarotik uztailera arte egongo da zabalik.

Deustualdeko lantaldea entitateak identifikatzeko laguntza eske

Edozein talde, elkarte edota erakunde sar daiteke entitateen multzoan eta Deustualdean dagoen kopurua ikusita, lantaldeak Euskaraldian parte-hartzeko interesa duten entitateak identifikatzeko laguntza eskatu du. Era berean, talde-eragilean zein laguntzaile-taldean parte-hartzera gonbidatu dute interesa duen oro. Bi astearterik behin batzen dira 19:45ean Berbaizuko lokalean.

Harremanetan jartzeko: *11eguneuskaraz@gmail.com* / *berbaizu@euskalnet.net*
Informazio gehiago: *www.euskaraldia.eus*
Izen-emateak: herria (hemendik abendura arte), entitateak (2019ko azarotik 2020ko uztailera arte) eta norbanakoak (2020ko irailetik).

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

KLASIKOA

Benidorm kaleko laugarren zenbakira jo dugu oraingo honetan. Juanbak eta Beak egunero barran izaten dituzten pintxo, razio eta edarien berri eman digute.

Zailtasun maila: Txikia

Egiteko denbora: Minutu bi

Prezioa: 1,05 €

Berezitasuna: Bi mailako sandwicha

Kontu batzuk

Taberna barruan zein kanpoan izaten den giro bikainagatik da ezaguna Josebar – Muditobar taberna. Izan ere, *Mudito* Juanba jabeari ironiaz jarritako goitizena da, inoiz ez baita mutu geratzen. Giro onaz gain, jatekoek ere dute izen ona tabernan. Goiz-goizetik eta berandura arte denetarik dastatu daiteke: gosariak, razioak, hanburgesak, ogitartekoak, bi mailako sandwichak, pintxo pikanteak, pata-tortilla bokatak... Gainera, ostegunetan edariarekin jatekoa ematen dute opari eta larunbatetan txibierroak eta txopitoak prestatzen dituzte.

Josebar - Muditobar tabernako Bea eta Juanba

JOSEBAR
MUDITOBAR

JOSEBAR MUDITOBAR

Benidorm kalea, 4
944 07 43 69
Astelehenetik larunbatera 06:00-01:00

Zelan egin?

Moldeko ogi-xerra bat maionesaz igurtzi. Urdaiazpiko egosia eta txaka gehitu. Beste ogi-xerra bat ipini, eta honen gainean arrautza frijitua. Hirugarren ogi-xerrari tomate saltsa berezia gehitu eta gainean jarri.

OSAGAIAK

Urdaiazpiko egosia
Txaka
Arrautza frijitua
Maionesa
Tomate saltsa berezia

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

GORKA ZOZAIA GARCIA
Erriberako zientzia irakaslea

... ETA, AZKENIK, AURREZTU ENERGIA ETA INBERTITU KULTURA(N)

Zientzialari gisa, bestela, ezin zuenez, nahiko kultur gomendio xelebreak eskaini dizkizuet PREST!ek lagatako txoko honetatik –eskerrak, horregatik ere. Neguaren hondarreko aratuste giro betean, 2019ko azaroan kokaturiko fikzio filma gogoangarria gomendatuz hasi nintzen, Blade Runnerreko *erreplikanteek* kulturaz esaten ahal digutena iradokitzeko. Udaberriak ordu aldaketa ezarri zigunean, ordulariak bizimodua erregulatzeko duen funtzio kulturala salatu eta egunsentiarekin esnatzea gomendatu nuen. Udan sartzearekin, berriz, eguzkia arbuiatu eta zeru ilunak ikusarazten dituen astroak ezagutzera animatu zintuztedan, gure auzo kosmikoaz gozatzeko. Azkenik, udazkenarekin, gozamen lurtiarragoak gomendatu nituen, sabela eta gogoa asetzeko perretxikoak eta laino arteko pasioak proposatu nizkizuen.

Kultur gomendiotzat eman ditut denak, behinola Joxe Miel Barandiaran antropologoak kulturaz emandako definizioa aintzat hartuta, bizitzako erronkei ematen diegun erantzun sorta gisa ulertzen baitut nik ere: nola jan-edan, nola babestu, nola komunikatu... Negua oraino heltzear, baina dagoeneko hotza hezurretaraino sartuta dugularik, berogailuak topera izan gabe hotzaz nola babestu aztertzera animatzen zaituztet oraingoan; etxekoei, nagusiei, baliabide gutxirekin bizitzen dakitenei, kultur-ondarez jantzi eta negua goxo-goxo igarotzera eta, aurreztutako diruaz, merke edo doan izatera ohitu gauden baliabideetan gastatzera, izan komunikabideetan -eskuartean duzun aldizkari honetan, adibidez- edota elikaduran -auzoan martxan jartzear den Labore egitasmoan kasu.

Kulturaren bidez kateatzen bagaituzte, inbertitu dezagun kultura eta inbertitu dezagun aske egingo gaituen kulturan!

MADDI TRANTXE GEREÑO
Elorri bertso-eskolako kidea

BESTE ERRUTINEN ANTZERA

Doinua: Abokatuak deitu berri dit

Hizkiak lotuz eta jolastuz
erraz lortu daitekeena
esaldiak ere osatzen ditu
hizkuntza baten barrena
ahoz aho zabalduz badoa
honena eta horrena
batzuei balio diezaieke
betetzeko ongi barrena
ahoak bete eta belarriak
asetzeko kapaz dena
emozioak sortzeko orduan
bera eraginkorrena

Emozio bat sortzeko gai da
erabiltzen den bakoitza
batzuk erabiltzeuten modua
ordea da ulerkaitza
batzuetan esaten duguna suertatzen da
bai bortitza
aurpegi asko izan ditzake
nola erabili da giltza
Jakingo bagenu erabiltzen
beti behar dugun hitza
bi mila bider zintzoagoa
litzake gure bizitza

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

BABESTU

Prest!

URTEAN 25 EUROKO EKARPENAREKIN

INFO +
prestharpide@gmail.com
94.447.10.42
Ramon y Cajal 42

Bilbon euskaraz

Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus

Euskararen Etxeko Interpretazio Zentroan hezkuntza proiektu berria abiatuko dugu

2020ko urtarrilean

Ikastetxeei zuzenduta

Egin erreserba:

www.azkuefundazioa.eus

euskararen etxea

Azkue Fundazioa